

Txokolatea dugu gustuko

Iraide Urkiaga

Iratxoak sartzen dira. Musika.

Irati: Kaixo, arratsalde on! Ni ihintzaren iratxoa naiz, eta hemendik oso urruti dagoen zuhaitz baten sustraietan bizi naiz.

Joseba: Kaixo! Ni eguraldiaren iratxoa naiz, eta hemen dagoen hodei honetan daukat etxea.

Iker: Kaixo! Ni animalien iratxoa naiz, eta hauek dira nire lagunak.

Musika.

Denak: Gu iratxoak gara eta, gehienbat, umeekin jolastea dugu gustoko!

Badoaz. Umeak sartzen dira, pilotarekin jolasten.

Oihane: 1,2,3. Eeezzz! Pilota bota duzu!

Alba: Eeezze zertara jolastuko dugu orduan??

Iker: Ez da urrun egongo. Bilatuko dugu.

Musika. Koreografia.

Oihane: Eskerrak aurkitu dugun!
Ane: Etxera itzuliko gara.
Iker: Eta non dago etxea?! Hemendik... Hortik...

Badoaz. Sorginak sartzen dira.

Nerea: Ufff! Aspaldi du ez dudala ezer jaten.
Selene: Gose naiz...
Sima: Ez esan txorakeriarik, atzoko janari osoa zuk jan zenuen eta!
Paula: Ixo! Zeozer entzuten da... Eta zeozer usaintzen da ere...
Sima: Egon ixilik! Aspalditik ez da inor baso honetara hurbiltzen.
Selene: Lotara noa, ea horrela gosea arintzen dudan.
Denak: Aukera zuzena. Zurekin goaz.

Badoaz. Gurasoak sartzen dira.

Mikel: Janaria egitea oso nekagarria da.
Jon: Nik etxea txukuntzen eman dut egun osoa...
David: Janari ederra, gaurkoa!
Andrea: Begira! Txoria oso pisutsua da. Aste baterako jana izango dugu!
Mikel: Aspaldi ez ditut umeak ikusten...
Andrea: Egia. Hemen egon behar zuten.
Denak: Umeak! Non daude umeak?

Badoaz. Musika. Umeak sartzen dira. Musika. Dantza.

Oihane: Zein izango da bide zuzena?
Sara: Ez dakigu! Banatzea izango da onena. Horrela, norbaitek bide zuzena aurkituko du, behintzat.
Mikel: Beldur naiz. Binaka joango gara, ados?

Leire: *Hirunaka!*
Naraoa: *Zuek ausartak zarete, zuekin noa.*
Danae: *Ez dakit bide zuzena topatuko dugun.*
Naraoa: *Saiatuko gara. Etxera itzuli nahi dut!*
Diego: *Baso honetan galtzea arriskutsua da. Ez dakigu nor*
 bizi den zuhaitz hauetan.
Oihane: *Ez gara beldur!*
Naraoa: *Geldi! Norbait dator!*
Denak: *O, ez!!! Sorginak dira, aaaaaaa!!!*

Musika. Koreografia. Badoaz. Gurasoak sartzen dira.

Sara: *Larrituta nago.*
Mikel: *Aiii ama! Non daude umeak?!*
Andrea: *Azkar ibili behar dugu. Euria hasiko du.*
Naraoa: *Presaka ibili behar dugu. Baso hau oso arriskutsua da!*
David: *Bai! Hemen sorginak bizi dira!*
Denak: *Aaaaaaaa! Ume gaixoak!*

Musika.

Mario: *Azkar! Hemen umeen aztarnak daude! Jarraituko ditugu.*

Musika. Koreografia.

David: *O, ez! Aztarnak bukatu dira...*

Badoaz. Umeak sartzen dira.

Jone: *Usain arrarora hartzen dut.*
Leire: *Bai, landare usaina dago.*
Ibai: *Ez ez, ez dago landare usainik...*

Musika. “Usaindu” koreografia.

Mikel: Hori da! Txokolate usaina dago.
Leire: Egia! Txokolate usaina, zein goxoa!
Danak: Txokolate usaina dut gustuko!

Musika. Sorginak sartu.

Denak: Kaixo, kaixo!!!
Nerea: Hara nor dugun hemen!
Leire: Gure umetxo ederrak dira!
Narrea: Zer egiten duzue baso honetan?
Umeak: Txokolate usaina hartu dugu, eta hona ekarri gaitu...
Selene: Primeran! Gose izango zarete, orduan...
Sima: Zatozte, indaba goxoak ditugu lapikoan.
Helena: Bai, zatozte, zatozte... Gustura egongo zarete.
Umeak: Ez!!!

Musika. “Harrapatu” koreografia. Iratxoak sartu.

Irati: Geldi! Iratxoak gara! Utzi umeak libre!
Sorginak: Kar-kar-kar! Zer?!
Irati: Zuek ikusi... Aspaldi bizi gara baso honetan...
Hemengo sekretu guztiak ezagutzen ditugu...

Gurasoak sartu.

Andrea: Umeak!!!
Irati: Lasai. Ea, iratxoak zareten guztioi: ezagutzen duzue sorginak uxatzeko abestu beharreko abestia?
Iratxoak: Bai, noski!
Irati: Orduan, berotu ahotsa, eta hasiko gara.

“Sorgina pirulina” abestia. Koreografia. Ikusleek abestu.

Koreografia. Sorginak haserre.

Andrea: Lortu dugu!!! Eskerrik asko!!!

Musika. “Pozik gaude” koreografia.

